www.cme-espana.org

HEZKUNTZAREN

Aldeko Mundu-kanpainia

HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDU KANPAINA EUSKADIN

2018-2019 IKASTURTEA

Jardueren Memoria

Hezkuntza defendatzen dugu, Munduaren euskarri gara!

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN PARA EL DESARROLLO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astean Euskadin egindako jarduerak:
   2.1 Araban egindako jarduerak
   2.2 Bizkaian egindako jarduerak
   2.3 Gipuzkoan egindako jarduerak
3. Kanpainaren esparruan ikastetxeetan egindako beste jarduera batzuk
4. Kanpainaren esparruan Euskal Herriko Unibertsitatearen hezkuntza-fakultateetan egindako jarduerak
5. Esker onak

1. Sarrera

2011. urtetik, Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainak Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astea ospatzen du mundu osoan. Astebetekoa izaten da, eta apirilean egin ohi da. Hezkuntzarako eskubidea bermatzearen alde lan egiten dugun 124 herrialdek baino gehiagok mobilizazioak egiten ditugu aste horretan, mundu osoan kalitatezko hezkuntza bat izateko eskubidea benetakoa eta eraginkorra izateko premiaz ohartarazteko bai hezkuntza-komunitatea, bai komunikabideak, bai gizartea oro har, eta batik bat ordezkari politikoak.

Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainak azpimarratu nahi du ikasleek eta oro har gazteek beren gizartea modu positiboan aldatzeko boterea dutela, sentsibilizazio-jardueren eta aldarrikapenaren bidez.

2019an, Hezkuntza defendatzen dugu, Munduaren euskarri gara leloaren bidez, ingurumen-hezkuntza ari gara bultzatzen; zehazki, gure hezkuntza-sistemak eraldatzeko premiaz ari gara ohartarazten, bizi-estilo jasangarriagoak susta ditzaten. Klima-aldaketa erronka globala da, ingurumenean ondorio larriak eragiteaz gain, oso giza kostu handiak ere sortzen dituelako. Esate baterako, kalkuluen arabera, airearen ingurumen-kutsadurak eragina eduki zuen munduan izandako 4,2 milioi heriotza goiztiarretan (horietatik 38.000 Espainian izan ziren). Era berean, uste da 2050erako 200 milioi pertsonak lekualdatu egin beharko dutela klima-aldaketaren ondorioz, eta klima-aldaketaren ondorioek pobreziara eraman ditzakete 122 milioi pertsona 2030erako. Hezkuntzari ere eragiten dio fenomeno horrek, hondamendiren bat gertatzen denean aurrena alde batera uzten den jardueretako bat baita hezkuntza. Horrek genero-ikuspegitik ere ondorio larriak ditu, krisietan eta larrialdietan askoz ere gehiago eragiten dielako neskatoei eta emakumeei.
Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainak bat egiten du Nazio Batuen Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldearekin (IPCC), hark bezala guk ere aldarrikatzen baitugu, gure planeta salbatu ahal izateko, hezkuntzak funtsezko rola izan behar duela gure portaeren eta kontsumo-patroien aldaketa indibidual eta kolektiboan. Honako ekarpen hauek egin ditzake ekitatezkoa, inklusiboa eta kalitatezkoa den hezkuntzak:

- ✓ Pertsonak gai izatea ingurumen-arazoak ulertzeko eta haiei erantzunak emateko, bai eta haien ondorio negatiboetara egokitzeko eta beren zaugarritasuna murrizteko ere. Esate baterako, ikerketek frogatzen dute hezkuntza-maila handiagoa duten nekazariek gaitasun handiagoa dutela klima-aldaketaren ondorioetara egokitzeko. Beste azterketa batzuek erakusten dutenez, hezkuntza-aurrerapena geratu egiten bada, hondamendi naturalek eragindako biktimen kopurua %20 haz daiteke hurrengo hamarkadan. Aitzitik, 2030erako Bigarren Hezkuntza unibertsala izatea lortuko balitz, hondamendi naturalen ondorioz 200.000 pertsona gutxiago hilko lirakete hurrengo hogei urteetan.
- ✓ Herritarrak heztea, klima-aldaketaren eta bestelako ingurumen-arazoen kausez eta ondorioez jakitun izan daitezen, eta herritar horiei beharrezko ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak irakastea, gai izan daitezen konponbideak bilatzeko, beren kontsumo-ohiturak aldatzeko eta gizartea eraldatzeko. Esate baterako, ingurumen-hezkuntza gehitzeak balioak eta portaerak aldatzen laguntzen du, bai maila indibidualean, bai kolektiboan, eta horrek kontsumo-ohiturak aldatzen eta ingurumen-arazoei konponbideak bilatzen laguntzen du.

Euskadin, honako hauek dira lurralde-taldeko kideak: Educo (taldearen koordinatzailea), Zabalketa elkartea, Ekintzaz Lagundu, Derandein fundazioa, EGOAIZIA garapenerako lankidetzaren elkartea, ElkarHezitzen, FISC Cooperacion y Desarrollo, Itaka Eskolapioak fundazioa, Ikastetxetik Auzora, InteRed eta Jolas eta Ekin.

Hiru lurraldeetako ikastetxeekin lan egiten dugu: Bizkaikoekin, Arabakoekin eta Gipuzkoakoekin. Gainera, mobilizazio- eta aldarrikapen-ekintza nagusiak Bilbon, Gasteizen, Eibarren eta Arrasaten egiten ditugu.

2005. urtetik, Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astea egiten dugu Euskadin, euskal gizartea kontzientziatzeko guztientzako doako eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko premiaz. Horretarako, jarduerak egin ditugu 2018-2019 ikasturte osoan zehar. Hain zuzen, ikasturte honetan, gehiago sakabanatu ditugu ekintzak, eta hiru lurralde historikoetako zenbait udalerrik parte hartu dute. Hezkuntza defendatzen dugu, Munduaren euskarri gara leloarekin, ikasleek, irakasleek nahiz hezitzaileek askotariko ekintzetan parte hartu dute, nabarmentzeko zenbateko garrantzia duen hezkuntzak ingurumenaren degradazioaren aurkako borrokan eta gizarte- eta ingurumen-eredu jasangarriago bateranzko eraldaketan.

Aipatu behar dugu 2018-2019 ikasturtean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren babesarekin garatzen ari garen proiektuaren barruan, zenbait jarduera egin ditugula Afrikan; besteak beste, proiektu hasierako tailerra, Dakarren, Beningo, Senegalgo eta Burkina Fasoko Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainako koalizio nazionalekin eta ANCEFA kanpainaren eskualdeko antolakuntzarekin batera. Senegalgo eta Euskadiko Educoko taldeek parte hartu zuten.

Lurralde-taldea:

2. Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astean Euskadin egindako jarduerak

2.1 Araban egindako jarduerak

Apirilaren 5eko goizean, ostirala, **Gasteizko** San Prudencio eta San Viator ikastetxeetako 160 ikasle inguru elkartu ziren euskal hiriburuko Konstituzio plaza atseginean, guztien hezkuntzarako eskubidea aldarrikatzeko eta ingurumenaren jasangarritasuna defendatzeko. Ekitaldian, zenbait talde-dinamika eta animatutako jokoak egin zituzten, eta amaitzeko, landare batzuk landatu zituzten. Gure planeta zaintzeko beharra eta hezkuntzak arlo horretan bideratzaile lana egiteko beharra sinbolizatu zuten ekintza horrekin. Bien bitartean, ikasleek testu batzuk irakurri zituzten, eta gogoetak egin zituzten, aurrez beren ikasgeletan zenbait saiotan landutako gai horiei buruz. Ikasleek oso partaidetza aktiboa izan zuten, haiek izan baitziren jardueraren gidari eta protagonista nagusiak. Ikasleek landutako eta adierazitako eskaerak dokumentu batean bildu ziren, eta posta elektroniko bidez igorri zaie dokumentu hori Gasteizko Udaleko hiru departamenturi: lankidetzakoari, hezkuntzakoari eta alkatetzakoari.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako bi ordezkari izan ziren ekitaldian, Marlen Eizagirre eta haren departamentuko lankide bat, eta Mikel Martinez, Gasteizko Udaleko garapenerako lankidetzaren zerbitzuko teknikaria.

2.2 Bizkaian egindako jarduerak

Aurten, Hezkuntzaren Aldeko Munduko Asteko Bizkaiko ekitaldiak **Santurtziko** Jose de Calasanz ikastetxean zentralizatu ziren, apirilaren 4ko goizean, osteguna. Ikastetxe hori Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainan gehien inplikatuta dagoen eta aktiboena den ikastetxeetako bat da. Ia ikasle eta irakasle guztiek parte hartu zuten ekitaldian, txikienetatik hasi eta Lanbide Heziketara artekoek.

Oso egun alaia izan zen, eta han zeuden guztiek bat egin zuten hau defendatzen: hezkuntza dela mundu jasangarriagoa lortu ahal izateko aldaketarako motorra. Mezu hori helarazi zieten Santurtziko tokiko agintariei, han bilduta baitzeuden. Tamaina guztietako pankarta ugari zeuden, partaideek berek eginak. Pankarta horietan, hezkuntzaren garrantziari eta gure ingurumena –hau da, natura– errespetatzeari buruz egindako mezu giltzarriak irakur zitezkeen.

Ikasle nagusienak, Lanbide Heziketako graduak egiten ari direnak are gehiago inplikatu ziren, Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren manifestua haiek itzuli baitzuten euskarara (eranskinean dago atxikita). Han zeuden guztiei irakurri zieten manifestua, baita agintariei ere, eta gainera, ikus-entzunezkoen arloko ikasketak egiten ari direnez, ekitaldiari buruzko zenbait bideo egin zituzten, bai eta amaierako bideo bat ere. Hemen klik eginda ikus daiteke: **https://cutt.ly/zeSsR8K**

2.3 Gipuzkoan egindako jarduerak

Aurten Gipuzkoako lurralde historikoan era askotako jarduerak egin dira, eremu eta data ezberdinetan. Hori guztia HeziZerb Gipuzkoako GKEaren lan handiari esker izan da, urte asko baitaramatza gazteak hezkuntzari eta gizarteari lotutako askotariko gaietan sentsibilizatzen eta mobilizatzen.

Jarduerak martxoaren 28an hasi ziren, osteguna, **Andoainen**, Leitzaran ibaiaren garbiketarekin. Ibai-bazterren garbiketa horrek harrera ona izan zuen, eta inguruko Bigarren Hezkuntzako 22 neska-mutilek parte hartu zuten. Ondoren, apirilaren 4an, osteguna, ekintza horri ikusgarritasun handiagoa emateko eta benetan gizarteari gure ingurumena ez zaintzeak dituen ondorio tamalgarriak erakusteko ahalegina egiteko, Andoaingo udaletxearen plazan erakusketa bat egin zen ibai-bazterretatik ateratako zabor guztiarekin. Horrez gain, Tantaz Tanta Ozeanoan ikaskuntza- eta zerbitzu-proiektuaren barruan gazteek egindako panelak jarri ziren ikusgai.

Apirilaren 1etik 4rako astean, **Errenterian** ere egin zen inguruko gazteek egindako panelen erakusketa; zehazki, HeziZerben parte hartu zuten gazteen panelak ziren, Tantaz Tanta Ozeanoa proiektuaren barruan eginak. Erakusketa aprobetxatu zuten handik pasatzen ziren pertsonak ere ekintzara bultzatzeko. Beren eguneroko ohiturei buruz gogoeta egitera animatu zituzten, eta Plastikoaren erabilera onari buruzko dekalogoa eman zieten. Hori guztia herriko Niessen merkataritza-zentroan egin zen.

Eibarren, Aldatze ikastetxeak, Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainarekin Euskadin gehien konprometituta dagoen ikastetxeetako batek, mobilizazio-ekintzen astean parte hartu zuen berriz ere. Hango ikasleek zenbait jarduera interesgarri egin zituzten. Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleek klima-aldaketari buruzko mural bat egin zuten; hirugarren mailakoek, berriz, Ultimatum Evolutivo bideoa ikusi zuten, eta ondoren, bideoaren gaineko gogoetak eta iruzkinak egin zituzten taldean. Besteak beste, energiaren xahutzeaz eta lehengaien erabilera okerraz konturatu ziren. Ikasturte horretako ikasleak Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren unitate didaktikoetan proposatutako tximeleta-efektua jolasean ere ibili ziren. Ikasle bakoitzak inguru fisikoko elementu bat (harria, euria, airea…) edo elementu biotopiko bat (landareak edo animaliak) izatea aukeratu behar zuen, eta elkarri haril bat pasatuz, ekosistema batean sortzen diren harremanak sortu behar zituzten. Behin sare osoa amaitutakoan, ekosistema horrentzat kaltegarria den ekintza bat aipatu behar zuen ikasle bakoitzak, eta erortzen utzi behar zuen eskuan zuen haria; hala, pixkanaka, suntsitu egin zituzten hasieran zeuden konexio guztiak. Hunkipena eragin zien horrek.

Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleei proposatu zitzaien sor zitzatela poemak eta dantzak, norberak ingurumena asko edo gutxi zaintzeak duen garrantziari buruz. Ikasturte osoan bertsolaritzako eskolak jasotako ikasleak ziren, eta ikasleek berek proposatu zuten jarduera-mota hori egitea.

Bosgarren eta seigarren mailako ikasleek, Bigarren Hezkuntzakoek (DBH) bezala, zenbait scrabble eta mural sortu zituzten, eta ikastetxeko zenbait gunetan jarri zituzten ikusgai, ahalik eta jende gehienak ikusteko moduan.

Guztien artean aukeratu zituzten hitzak, eta letrak oso modu artistikoan diseinatu eta margotu zituzten.



Gainera, irakasleek eta ikasleek, txandak eginez, erakusgaiak, azalpenak eta gogoeta bateratuak antolatu zituzten ikasgelen artean; esate baterako, Bigarren Hezkuntzako ikasgeletakoek Lehen Hezkuntzakoei eman zizkieten azalpenak, eta alderantziz ere bai, Lehen Hezkuntzakoek Bigarren Hezkuntzakoei.

Apirileko lehen aste osoan, informazio-mahai bat ere jarri zuten Eibarko Juan San Martin liburutegian. Liburuen eta pelikulen gida bat zegoen informazio-mahaian (eranskinean), eta Hezkuntza defendatzen dugu, Munduaren euskarri gara leloa erabili zuten, pertsonak informatzera eta ingurumenaren gaiari buruzko gogoeta egitera motibatzeko. Pixkanaka, indar handia hartzen ari da gaia gizartean, eta haren garrantziari buruzko kontzientzia handiagoa hartzen ari gara.

Jardueraz betetako aste hori amaitzeko, apirilaren 5ean, ostirala, **Donostian**, IES Manteoko ikasleek Zurriolako hondartzaren garbiketa antolatu zuten goizean, eta arratsaldean, hiriko gaztelekuetako (gazteen zentroak) neska-mutilek eta nerabeek jarraitu zuten hondartza hori garbitzen, Patris Surf erakunde sozialarekin batera. Bi ekintzak Tantaz Tanta Ozeanoa proiektuaren barruan kokatzen ziren, eta aurtengo Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astearen gaiarekin lotu ziren. Horretarako, Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren informazio-stand bat jarri zen itsas pasealekuan, hondartzaren ondoan.

- Beste datu interesgarri batzuk -

Hezkuntzaren Aldeko Munduko Ekintza Astean, Euskadin, komunikazio-kanpaina intentsibo bat jarri zen martxan, eta argitalpenak egin ziren Euskadiko Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren sare sozialetan.

Twitter: https://twitter.com/CME_Euskadi
Instagram https://www.instagram.com/cme_euskadi/

Aldi berean, ekitaldien berri eman zen, Euskadiko GGKEen Koordinakundeak urtero zerrenda batean jartzen dituen kazetariei prentsa-ohar elebidunak igorriz. Talde honetako GKEen bidez izaten da sarbidea zerrenda horretara, GKEak koordinakunde horretako kide baitira. Koordinakunde horren ekitaldi-agendaren bidez eta irratiko elkarrizketen bidez ere eman zen ekitaldien berri:

-Hágase La Luz
-Radio Vinilo
-Ser Bilbao

3. Kanpainaren esparruan ikastetxeetan egindako beste jarduera batzuk

Bizkaian, ekainean, Leioako Gaztelueta ikastetxeko Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleek oso modu ludiko eta didaktikoan landu zituzten kanpainako materialak.

Hain zuzen, Euskadiko Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainak prestatutako unitate didaktikoen artean dagoen "**Jasangarritasunaren txokoak**" jarduera landu zuten. 6 eta 8 urte arteko umeei bideratutako jarduera da. Hogeita bosna ikasleko hiru ikasgelak parte hartu zuten. 4A eta 4C geletako ikasleek mikroipuinak irakurri zituzten, eta 4B gelakoek, irakurtzeaz gain, zenbait ekosistema sortu zituzten kartulinetan.

Gasteizen, Niño Jesus ikastetxeko Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek urtero lantzen dituzte kanpainak proposatutako jarduerak, eta aurten, maiatzean ikastetxeko eguna aprobetxatuz, PowerPoint bat egin zuten guztien artean unitate didaktikoetako ingurumen-hezkuntzari buruzko edukiekin, eta ondoren, gaur egun hain garrantzitsua den gai horri buruzko gogoeta kolektibo bat egin zuten.

Kanpainak proposatutako scrabble-a ere egin zuten jasangarritasunarekin eta ingurumenarekin lotutako hitzekin, eta patioan jarri zituzten, mundu guztiak izateko haietaz gozatzeko aukera, eta aldi berean, gure espiritu kritikoa pixka bat gehiago eraikitzeko. 650 ikasle inguruk parte hartu zuten!

Orain, ozeanoa zeharkatuko dugu, eta kontatuko dizuegu AMS Mundu Solidarioa erakundeak, Euskadin Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren parte denak, **Nikaraguan** bere ordezkaritzaren bidez, ingurumenaren jasangarritasunak duen garrantzi handiaz kontzientzia handiagoa izatea ere sustatu duela. AMSk babestutako tokiko garapenerako sustatzaileen taldeak, gure ingurumena zaintzeak duen premiaren jakitun, zenbait jarduera egin ditu bere inguruko eskoletan, Euskadiko Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainak emandako materialen laguntzarekin; adibidez, Jobo komunitateko "José Cecilio del Valle" eskolan eta Diriamba-ko “Mi pequeña Luz” eskolan, basoa lehengoratzea sustatzen aritu da talde hori, eta hitzaldiak ere eman ditu ikasleentzat. Hemen duzue bideoaren esteka, lan hori nola egin den ikusi ahal izateko!

hhttps://cutt.ly/QeSg3Fv

4. Kanpainaren esparruan Euskal Herriko Unibertsitatearen hezkuntza-fakultateetan egindako jarduerak

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

I- Bizkaia

Azken urteotan, ikasleek beren gradu-amaierako lanen bidez premia sozialei erantzuna emateko ahalegina ari da egiten Bilboko Hezkuntza Fakultatea. Horretarako, ikasleen, gizarte-erakundeetako ordezkarien eta irakasleen arteko topaketa bat antolatu zuten fakultatean martxoaren 14an. Zein izan zen topaketa horren helburu nagusia? Ikasleek eta irakasleek ideiak biltzeko aukera izatea, horietan oinarritu ahal izateko beren gradu-amaierako lanaren proposamena, hezkuntzari lotutako erakundeen lankidetzarekin.

Euskadiko Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainako ordezkariak ere egon ziren topaketan, eta kanpainak maila globalean eta tokian bertan zer helburu dituen, zer erakundek parte hartzen duten, zer jarduera egiten diren eta azken urteotan hezkuntzako zer gai jorratu dituzten azaldu zuten. Aurtengo gaia ingurumen-hezkuntza dela kontatu zuten: Hezkuntza defendatzen dugu, Munduaren euskarri gara.

Hamarren bat gizarte-erakundetako ordezkariak izan ziren topaketan. Informazioa trukatu zen, eta interesa erakutsiz erakusmahaietara gerturatutako ikasleei kasu egin zitzaien (10 ikasle inguru). Halako topaketa bat antolatzen zen lehen aldia zenez, espero baino txikiagoa izan zen partaidetza, baina Euskadiko Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren eta fakultateko Gizarte Hezkuntzako departamentuaren artean oso sintonia ona sortu zen; beraz, lankidetzarako zer bide egon daitezkeen aztertuko dute.

II- Guipuzkoa

Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako campusean, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatean, hezkuntzarako eskubideari buruzko jardunaldiak egin ziren, eta bertan, Euskadiko Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainak parte hartu zuen, bere kanpainaren misioaren eta helburuen berri emateko eta aurtengo gaiari buruz sentsibilizatzeko, hau da, ingurumen-hezkuntzari buruz sentsibilizatzeko.

Euskadiko Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren eta Luis M. Naya Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko irakasle titularraren arteko aurretiazko konfiantza-harremanari esker, apirilaren 12an hezkuntzarako eskubidearen aldeko jardunaldietan parte hartzeko gonbidapena jaso genuen. Urtero antolatzen dira jardunaldi horiek Euskal Herriko Unibertsitatearen Donostiako campuseko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatean, eta iaz ere parte hartu genuen.

Ordu eta erdiko tartea izan genuen Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainak maila globalean dituen misio eta helburuak azaltzeko, esparru horretan 2005etik Euskadin egindako lanaren sarrera bat egiteko eta partaideak 2019ko Hezkuntza defendatzen dugu, Munduaren euskarri gara leloarekin sentsibilizatzeko.

Oraingoan, Zabalketako eta InteRedeko ordezkariak joan ziren kanpainaren lurralde-taldearen izenean, eta Euskadiko kanpainak Lankidetzaren Euskal Agentziarekin sinatu duen lankidetza-akordio berriaren berri ere eman zieten partaideei. Akordioarekin, Euskadin nahiz Afrikako hiru herrialdetan (Senegal, Benin eta Burkina Faso) bultzatuko dira akordioak, hiru herrialde horietako kanpainaren nazio-batzordeen bidez nahiz ANCEFAren bidez (kanpainaren eskualdeko koordinatzailea). Aukera hori baliatuta, Senegalgo proiektu-hasierako tailerraren bideo bat ipini zen; hiru herrialdeetako ordezkariek parte hartu zuten han.

Aurkezpenen eta galderen txandaren ostean, jarduera bat proposatu zitzaien ikasleei. Paper batean bi galdera hauei buruzko iritzia edo gomendioak idatzi behar zituzten: “Zer eskatuko zenioke unibertsitateari bere ingurumen-jasangarritasuna hobetzeko?” eta “Zure ustez, nola erlaziona daitezke hezkuntza eta ingurumenaren jasangarritasuna?”. Erantzun guztiak ikasgelan erakutsi ziren, eta ondoren, dokumentu batean bildu eta unibertsitateari entregatu zitzaizkion 2019ko ekainaren 27an egindako bileran (eranskinean dago dokumentua).

Jarduera horri buruz oso balorazio ona egin dute, bai Euskadiko Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainak bai parte-hartzaileek. Guztira 70 ikasle inguruk parte hartu dute, eta ikusi da, batetik, partaide-kopuruak gora egin duela aurreko urtetik, eta bestetik, ikasleek partaidetza aktiboagoa izan dutela.

5. Esker onak

Hezkuntzaren Aldeko Mundu Kanpainaren Euskadiko lurralde-taldeak eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten ikastetxeei, hezkuntza ez-formaleko zentroei eta unibertsitateei, egindako askotariko jardueren bidez kanpainaren helburuak ezagutarazten eta jendeari barruraino sartzen ahalegintzen jarraitzeagatik, bai eta oinarrizko eskubide baten aldeko espiritu kritikoa eraikitzen laguntzeagatik ere, hau da, guztien kalitatezko hezkuntzarako eskubidearen aldeko espiritu kritikoa eraikitzen laguntzeagatik.

Datorren ikasturtean ikustea espero dugu!

👋